

Denuncian que el informe "preliminar" presentado por Eneko Goia no tiene credibilidad

SATORRALAIA :: 28/11/2019

[Donostia] Para Satorralaia resulta por tanto inaceptable que ETS y el Ayuntamiento intenten desligar el derrumbe de las obras del Metro.

Eneko Goiak gaur aurkeztu duen aurre-txostena sinesgarritasunik gabekoa da: Metroaren obrak gelditzeko eskatzen du berriro Satorralaiak

Satorralaia bizilagunen mugimenduaren ustez, sinesgarritasunik gabekoa da Eneko Goiak gaur aurkeztu duen aurre-txostena eta Metroaren obrak joan den astean Zarautz etorbideko Lizarriturriko etxeen atzekaldean gertaturiko lur-jausiarekin zerikusia duela baieztatzeko datuak daude. Jakina denez, bertan behera erori den euspen-hormak 100 urtetik gora du eta Metroaren obra egin arte ez da hor inoiz antzeko beste gertakaririk ezagutu. Honi dagokionean, Metroaren obrak euspen-horma horren erorketan izan duen eragina erakusten duten hiru efektu kaltegarri hauek aipatu behar dira gutxienez:

- Bizilagunek azaldu dute Metroaren obrak hasi zirenetik lehen baino ur kopuru handiagoa jeisten dela mendi magaletik. Horrek erakusten du Metroaren eraikuntza-lanek kalteturiko lur-eremuan berezko ur-isurketak aldarazi dituztela, hormaren atzean areagotu den ur-kopuruaren bultzadaz murrak eman duen arte.

- Halaber, Metroaren obrako indusketa-lanen bibrazioen ondorioz euspen-hormaren atzeko lurren egoera aldarazi eta mendi magalaren ezegonkortasuna larriagotu ahal izan da, lurrek murraren gainean egiten zuten bultzada handituz. Bizilagunek ETSri eta Udaletxeari mendi magalaren eze Kongortasunaz ohartarazi zieten aurretik.

-Bibrazio horiek euspen-hormaren ahultzea ere eragin ahal izan dute bestalde, kontuan izanik murraren horren tipologia (harri-horma, erdaraz "mamposteria") ez dela hormigoizkoa bezain erresistentea.

Beraz, Satorralaiaren ustez onartezina da ETSek eta Udaletxeak lur-jausi horretan Metroaren obrak izan duen eragina ukatzea. Horrez gain, egitasmoaren arrisku errealak aztertzeko txosten independente bat egin dadin bizilagun kaltetuek egin duten eskaerari erakundeek ezezkoa ematea guztiz salagarria da.

Gauzak horrela, Donostiako Metroaren obrak gelditzeko eskatzen dugu berriro ere. **Atzo Metroaren obrak Zarautz etorbidean bertan sorturiko ke isurketaren argazkian.**

Satorralaia bizilagunen mugimendua

satorralaia.wordpress.com

Satorralaia manifiesta que el informe "preliminar" presentado hoy por Eneko Goia no tiene credibilidad y vuelve a exigir la paralización de las obras del Metro

El movimiento vecinal Satorralaia manifiesta que el informe "preliminar" presentado hoy por el alcalde Eneko Goia no tiene credibilidad y sostiene que existen datos para afirmar que las obras del Metro se encuentran entre las causas del derrumbe producido la semana pasada en la parte trasera de las casas de Lizarriturri, en la Avenida de Zarautz. Como es sabido, el muro afectado tiene más de 100 años y no se recuerda noticia alguna de una incidencia parecida hasta que se han realizado las obras del Metro. A este respecto, es preciso señalar al menos estos tres factores de desestabilización del muro producidos por la obra:

- Los vecinos y vecinas han denunciado que desde el comienzo de las obras del Metro bajaba más agua que antes por la ladera. Esto indica que las obras del Metro ejecutadas bajo la ladera afectada han alterado las escorrentías naturales, aumentando el empuje de las aguas sobre el muro hasta que éste ha cedido.
- Asimismo, las vibraciones de las obras de excavación del Metro han podido alterar el estado del subsuelo y agravar la inestabilidad de la ladera, aumentando su empuje sobre el muro. Las comunidades de vecinos/as afectadas habían advertido con anterioridad a ETS y al Ayuntamiento de la inestabilidad de la ladera.
- Las vibraciones han podido producir igualmente un debilitamiento del muro de mampostería (de una resistencia menor que los muros de hormigón).

Para Satorralaia resulta por tanto inaceptable que ETS y el Ayuntamiento intenten desligar el derrumbe de las obras del Metro. Además, denunciaremos la negativa de las instituciones implicadas a la demanda de la vecindad afectada que pide un informe externo sobre los riesgos reales del proyecto.

Así las cosas, volvemos a exigir la paralización de las obras de la pasante de Metro. En la **foto la nube de polvo provocada ayer por las obras del metro en la misma avenida de Zarautz.**

Movimiento vecinal Satorralaia

<https://eh.lahaine.org/denuncian-que-el-informe-preliminar>